

IKASLEAK

1. Ikasle bakoitzari gailu bat emanen zaio, kargagailua eta zorroa dituena, eta honek ezin izanen dio bertze inori eman. Chromebook-a kode batekin identifikatuta dago, erregistratuta dago eta ikasturtea amaitzean ikastetxera itzuliko da.
2. Ikaslearen ardura da bere Chromebooka eta kargagailua zaintzea, eta zorroa garbi edukitzea.
3. Chromebooka egunero etxetik kargatuta ekarri behar da ikastetxera, ikastorduetan erabili ahal izateko. Beraz, kargagailua etxean gorde behar da eta ezin da ikastetxera ekarri.
4. Gailua erabiltzen ez bada, zorroan gordeta egon beharko du nahitaez.
5. Ikasgelan gailua erabili behar ez bada, Chromebook-entzako gelako armairuan gordeko da.
 - a. 1. orduan ikasleak ikasgelara iritsiko dira eta, erabili behar ez badute, zuzenean armairuan gordeko dute. Ikasgelan dagoen irakasleak ireki eta itxiko du armairua.
 - b. Goizeko orduren batean, irakasleak hala eskatzen duelako, gailua ikasgelan erabiltzen bada, irakasleak berak ireki behar du armairua eta ziurtatu behar du saio amaieran gailuak berriz ere armairuan gordeko direla.
 - c. Ikasleak erreferentziakoa ez den gela batean erabili behar badute gailua, ikasgelatik irteten den irakasleak irekiko du armairua; eta, erreferentzia-gelara itzultzen direnean, sartzen den irakasleak ziurtatuko du gailua armairuan dagoela.
 1. 1.ordua bada, ikasleek gailua aldean eramango dute eta, erabili ezean, motxilan gordeko dute. Gorputz Hezkuntza izanez gero, dagokion irakasleak giltzaz itxiko du aldagela, edozein gorabehera saihesteko.
 2. 3.orduaren amaierarekin bat etorri gero, zaintzako irakasleak edo zuzendaritza taldeko kideren batek irekiko eta itxiko du gelako armairua.
 3. 4.orduarekin bat badator eta erreferentzia-gelan geratzen ez badira, ematen dizkien irakasleak irekiko du armairua.
 4. 6. ordurako bada, ikasleek motxilan gordetako gailua eramanez dute gero etxera eramateko. Gorputz Hezkuntza izanez gero, dagokion irakasleak aldagela giltzaz itxiko du, edozein gorabehera saihesteko.
 - d. Atsedendian, gailu guztiak armairuan gordeko dira.
6. Ikasleek ezin izanen dute instalatu irakasleek eskatu ez duten aplikaziorik.
7. Ikasleak gainazal sendo batean (mahaia) bermatu behar du gailua, jarrera desegokiak eta beharrezkoak ez diren istripuak saihesteko.
8. Ikasleak Chromebook-eko arduradunarekin (*DALIA ROSAGARAI-TEKNOLOGIA*) harremanetan jarriko dira gailuarekin sor daitekeen edozein gorabehera konpontzeko (gaizki funtzionatzea, haustura, etab.).

Aurreko arauak ez betetzeak ondorio batzuk ekarriko ditu:

HUTSEGITE ARINAK	ONDORIOA
<ul style="list-style-type: none"> - Gailua ez ekartzea. - Gailua etxetik kargatuta ez ekartzea. - Norberaren irakasgaikoak ez diren beste eduki akademiko batzuk lantzea. 	<p>Negatiboa. Zenbait negatibo metatzeak irakasgaiaren nota zigoritzea ekarriko du (arlo bakoitzean zehaztuko da).</p>
Berriz egitea	Chromebook hutsegite orria
HUTSEGITE LARRIAK	ONDORIOA
<ul style="list-style-type: none"> - Eduki ez-akademikoei begira egotea. 	Chromebook hutsegite orria
Berriz egitea	<p>3 chromebook hutsegite orri metatu → HUTSEGITE LARRIA</p> <p>HUTSEGITE LARRI BAT → Gailua egun batez kentzea</p> <p>2 HUTSEGITE LARRI → Gailua 2 egunez kentzea</p> <p>3 HUTSEGITE LARRI → Gailua aste batez kentzea</p> <p>(Zuzendaritza taldeak, TDEren arduradunak edo tutoreak hartuko du gailua) eta irakasleei jakinaraziko zaie.</p>

IRAKASLEAK

9. Irakasle guztiek araua betetzeko konpromisoa hartuko dute.
10. Tutoreek ikasleekin arauak lantzeko konpromisoa hartuko dute.
11. Irakasgai bakoitzeko irakaslearen ardura da ikasleek chromebook-ak behar bezala erabiltzen dituztela ziurtatzea. Irakasleak noiznahi berrikusi ahal izanen du ikasleen historiala (CTRL+H).
12. Ezin izanen da inongo ikaslerik bidali zaintza-gelara chromebook-ekin.